



Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako txirrindula bereziak Plazaolako Partzuergoan

Maiatzaren bukaeran, “Haciendo Huella” kanpainaren bidez bidalitako txirrindula egokituak iritsi dira Plazaolako Partzuergora. Kanpaina, Sanitas taldea, “Tambien” Fundazioa eta Ferrocarriles Españoles Fundazioaren eskutik bultzatua izan da.

Nafarroako gaigabetu fisikoen elkarte kordinatzailea (ACODIFNA) Plazaolako Partzuergora gerturatu zen bizikleta berriak eta horien erabilerarako egokituta dauden bide-tarteak aztertzeraz. Izan ere, hori da elkarte honen xede garrantzitsuenetariko bat, hots, mugikortasun mugatuko pertsonentzat zerbitzuak eta aukeren berdintasuna bermatzea eta ingurunea, ondasunak, zerbitzuak eta instalazioak egokiak direla baieztatzea.

Izan ere, elkarte hauek argi daukate Natur Bideak naturaz disfrutatzen eta horrekin konexioa lortzeko ibilbide paregabeak direla... eta batez ere, mugikortasun mugatua duten pertsonentzat. Bide horiek izan ohi dituzten helburu nagusien artean sartzen erraza izatea aurkitzen da. Gainera, jakin badakigunez, bide hauek antzinako trenbide saretik igarotzen dira eta horren ondorioz, hauek izan ohi dituzten aldapak minimoak dira, mugimendu mugatuko pertsonen erabilerarako oso erabilerrazak bihurtuz.

“Haciendo Huella” kanpainaren bidez Plazaolako Natur Bidera bidalitako txirrindula modeloak, Micah eta Hand- bike dira. Lehenengo, Micah, erabilera errazekoa da eta beste lagun batek gidatzeko aukera ematen du; hankak mugitu bai, baino oreka mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzeko pentsatuak dira (burmuineko paralisia, espina bifida....) eta horretarako enborrerako uhalak erabiltzen ditu. Bestetik, Hand-Bikea -modelo honetako bi eredu desberdin iritsi dira- eskuekin mugitzen diren pedal batzuekin gidatzen da, era horretan enborraren goikaldea garatuz.

Beraz, Plazaolako Natur Bidean, aukera paregabea ematen da mugimendu mugatu arin, ertain eta larriko pertsonen, Irurtzun eta Biaizpetik, Leitzara eta Gipuzkoako mugara iristen den ibilbidearen aberastasun paisajistiko eta kulturalarekin disfrutatu eta gozatzeko.

